

## **BIZITZAZ HARATAGOKO GUTUNA**

Arantzazu Ugarte Zubia, 17 urte

*Oñati*

Bizitzaz haratagoko gutuna; agian inoiz helduko ez dena, edo batek daki, agian hartzailea, idatzia den une berean irakurtzen ariko dena. Ni hamazazpi urteko neska bat naiz, eta herri txiki eta lasai batean igaro dut nire bizi osoa. Herri txiki honetan ditut lagun paregabeak eta familia maitagarri bat. Hau honela izanda, ez da arrazoirik antzematen nire nahi desiatuenak ez gauzatu ahal izateko. Haatik, badut gurari bat beste guztiak gailentzen dituen eta inoiz gauzatuko den jakin ezin dudana. Esan dut, bai, familia maitagarria dudala, ez ordea bere osotasunean. Gaur azaroaren hogeita bederatzia da, eta honekin batera, nire anaia zenaren bederatzigarren heriotza-urteurrena. Inork ez zuen uste, orain bederatzia urte, aurreko gauean Iñigo lagunekin afaltzera etxetik irten zenean,

gehiago itzuliko ez zenik. Baina hala gertatu zen zoritxarrez. Nik zortzi urte nituen garai hartan eta anaiak hogeita bat. Ordutik bizitzak aurrera jarraitu du geure etxean, betiere heriotzaren samina ezabatu ezinik, eta denbora pasa ahala, hazten joan naizen heinean, nire arimak tristuraren existentzia nabaritu du bere baitan. Anaiari zenbat maite nuen esan ezaren tristezia da gogoak somatu duena. Honetan dautza nire desira gorenak: mundu honetan geurekin zegoenean erran ez niona bere belarrietara helaraztean. Hau egin korra den jakin ez dakidan arren, gogokizun horrekin idatziko dut berari zuzendutako gutun hau.

Anaia maitea:

Hemen naukazu beste behin, nire bihotzaren aginduz, zure arimaren usainari jarraiki. Horrenbeste aldiz nire pentsamenduen oihartzunak helduko ote zitzaizkizulako zalantza jasan ezinik, hauek paperean ikusgarri egitea bururatu zait, agian honela mezua errazago antzemango duzulakoan. Aitzitik, jakin ezazu hitz arruntek nire sentipenen trinkotasuna adierazteko gaitasun nahikorik ez dutela; ezin direla sentsazio guzti hauek tinta putzu batean batu, espazioa edo denbora bera bezain mugagabeak baitira.

Ez dakit noizbait hau irakurri ahal izango duzun, ez eta nire barne oihuak entzungo dituzun. Baina itxaropena dut idazten ari naizen une honetan bertan irakurtzen ari ez bazara, egunen batean gutuna zure eskuetara heltzea eta zeure presentziaren hu-

tsunea bete ezina den arren, geure bihotzetan bizi-rik jarraitzen duzula ulertzea.

Zenbaezinak dira egunez egun, unez une, kasuz kasu, zure ondoan nengoeneko nire bizialdiaren oroitzapenak, barrua zeharkatzen didaten aldiak. Nire lehenengo zortzi urte eta erdi haietako bihotzeko gomuten txokoa hamaika pozaldiz betea dago; zu ahaztearen atsekabea ezintzen duten gogorapenak dira hauek. Gogoan dut, zure autoan oso gazte nintzelarik, altzoan hartuta, nirekin jolasten zenuenean gidatzen ari bagina bezala. Gogoan dut, negu aldean, elurrak mendiak margotzen zituenean, haietara igo eta pilotak bagina lez, biraka jaisten ginenean. Gogoan dut, gure etxean beti horren adierazgarriak izan diren gabonetan, mahaietan geurekin zinuenean, zure alaitasunaz geure barnea poz uholdez betetzen zenuenean. Gogoan dut, norbaitekin haserretzean, arrazoiak galdetzen nizkizunean, besotan hartu eta leihora hurbiltzen ninduzunean, zerura begira nezan, eta eguraldiagatik zela esaten zenidanean. Gogoan dut, anaia maitea, asko maite ninduzula.

Ustekabean, iritsi zen 1994ko azaroaren 28a. Zu pozik zeunden, lagunekin afaria zenuela eta. Asko maite zenituen zure lagunak, eta badakit zu ere beraien bihotzen zati zinela. Joan zinen bada; zeharkatu zenuen azkenengo aldiz etxeko atea, inork hura imajinatu izan gabe. Nola pentsatu horren alai etxetik “gero arte” irrifartsu batez irten zen poz murkoa hodeiez bete eta etxeko tris- turaren ontzia izango zela? Baina halaxe gertatu

zen zoritxarrez. Zuk nahi izan gabe, negar malkoz bete zenuen gure barnea. Gogoratzen naiz, hiru ahizpak ohean geundela, gurasoak sukaldean zeuden bitartean. Lasaitasuna errege zen. Baina halako batean erreinu hori behera etorri zen, ertzainak ate joka etorri zirenean. Istripu bati buruz mintzo ziren. Urduritasun eta ezinegona jainkotu ziren orduan arnasten genuen airean. Ama negar batean eta presaka, etxeko alde batetik bestera biraka, irtetzeko prestatzen ari zen bitartean, aita atzetik lasaitzen saiatzen, bere larritasuna hala ere estali ezinik. Ahizpa zaharrenak somatu zuen nonbait zure patua, eta ezin izan zioten egia ezkutatu. Nik ohean jarraitzen nuen, ama gaixoari zer gertatuko ote zitzaion galdezka. Izebak etorri ziren etxera. Momentu batean etxea inoiz baino beteago eta era berean inoiz baino tristeago zegoela iruditu zitzaidan. Ez dut xehetasun guztiakin gogoratzen gau hura, Iñigo. Baina ziur naiz orain arte ezabatu ez zaidan guztiak betiko iraungo duela nire gogamenean. Oroitzen naizen hurrengo izeba horietako baten etxean izan zen; hila zinen jada. Joan zinen betiko mundu honetatik. Etxetik eraman ninduten sufrimendu guzti hura horrenbeste ez antzemateko. Ez dut sekula ahaztuko izebak hitz horiek esan zizkidanean; “Iñigo hil egin da, maitea”. Malkoek aurpegia laztantzen zioten. Isiltasun sakon eta mingarria nagusitu zen. Hitz haiek nire baitan ari ziren etengabe oihartzunka, oiuhu mutuka nuen barnea. “Egizu negar lasai beharra baduzu” esan zidan orduan izebak. Baina

nik isilpean jarraitzen nuen. Ez nuen ezer uler-  
tzen. Ordura arte heriotzaren esanahia ezagutzen  
nuelakoan nengoen. Aitzitik, zu joan zinenean, zu  
galdu zintudanean, une horretan hitz ezezaguna  
iruditu zitzaidan. Ez nion benetako zentzua har-  
tzen negar egiteari, ez bainuen sinesten sekula  
ikusiko ez zintudanik. Gogorra izango zelakoan  
nengoen, sufrimendu hura besteongan ikustean,  
baina ez nuen zure betiereko ihesaldia zela senti-  
tu. Denboraldi luzea pasa behar izan zen nik hau  
ulertu ahal izateko. Zure falta somatzen nuen,  
baina edozein egunetan, edozein unetan, zu irten  
zinen ate beretik sartzen ikustea espero nuen.  
Zure logelara sartu eta izugarritzko kamusada jasa-  
ten nuen han ez zeudela ikustean. Seguru nengo-  
en itzuliko zinela.

Ene anaia, haiek ziren ilusioak haiek! Nork uler-  
taraziko zidan niri, anaia horrenbeste maite zuen  
gaztetxo bati, betiko joan zinela? Hura azaltzen  
saiatu ziren, ahalik eta min gutxien nola eman kon-  
tuan hartuta. Baina azalezina zen. Ni neu ohartu  
beharko nintzen denboraren poderioz, eta halaxe  
izan zen azkenean. Hilabeteak pasa, urte berriak  
hasi, eta zu ez zinen gurekin. Pixkanaka, heriotza-  
ren esanahia barneratzen hasi nintzen, eta zure fal-  
taren sumina geroz eta biziagotzen. Orduetik etxe-  
ko ohiturak zirenak ez dira berdinak, eta ez dira  
sekula izango. Nabarmen da zure presentziaren  
itzala galdu nahi eza gure artean. Baina data jakin  
batzuk gogor samarrak gertatzen zaizkigu zu ez  
zaudenetik; lehen pozgarrienak ziren egun haiek,

orain irudimenez bete beharrekoak dira, zuk hemen, gurekin, geure alboan eta beti bezain alai izaten jarraitzen duzula pentsatu nahian. Irailaren 3a iristen den bakoitzean, bazkaltzera joan ohi gara, zure urtebetetzea ospatzera, geure artean zeundenean egiten genuen lez. Gabonetan, familia osoa elkartzten ginenean, sentipen ugariak datorzkigu bihotzera. Baina hain da handia zure hutsunearen mina, urte madarikatu hartatik, ezin izan garela baserrira joan, senitarteko guztiak elkartzten ginen txokora. Gehiegizkoa da lehengusuak, osaba-izebak, ilobak eta guztiak bertan ikustean, zure aulkia hutsik ikusteak sortuko ligukeen zirrara. Baina egun zehatzez gain, badago egunerokotasunean triztezia sorrarazten didan kontu bat; gure bi iloba maitagarriak ezagutu ez izana. Ni ziur naiz hauek hazten direnean, eta gehiago badatoz, baita besteek ere, hitzez entzunagatik bada ere, beren osaba Iñigo miretsi eta maitatuko dutela, nik eta inguruko guztiok egiten dugun antzera.

Hamaika aldiz galdetu izan dut, eta beste hainbestetan erantzunik aurkitu ezinean geratu, zu non eta nola egongo zaren. Amets egina dut jada, zauden tokian egonik ere, bertatik ikusiko nauzula. Zeruan ala paradisuari, airean edo lurrian, arnasean ala malkoan. Ezjakintasuna nagusi; baina zoriontsu. Ezinbestean zoriontasuna lortu ahal izan behar duzu, eta honek barne poza dakarkit. Orain ez dut hiltzeko beldurrik. Ez dut ikara hura sentitzen, itxaropena dudalako bihotz bihotzez,

heriotza bizi honen amaiera izatearekin batera, zurekin elkartzearen hasiera izatea. Nire arimak zurearekin bat egingo duen unea amesten dut, anaia galdua berriro aurkitzearen poz mugagabea sentituz, eta honek lurrean utzitako lagun minei lasaitasunezko mezua bidaltzen die izua gal dezaten. Esandako guztiarekin, nire desio gorena betetzeko bide izan daitekeelakoan, ezinbestekoa dut nire azken hitzak honakoak izatea, barne-barnetik bultzaka dabilta, zure belarrietarako bidearen bila:

**IÑIGO, MAITE ZAITUT ETA EZ ZAITUT  
SEKULA AHAZTUKO.  
BABES NAZAZU ZURE ARIMAREN BITARTEZ  
ETA ERAKUTS  
IEZADAZU ZUREGANAKO BIDEA.**

Zure arreba gazteena